

# Ikusgai(z)tasuna gaiaren bidez aldatzea

Gorputzak, gatazka eta agentzia espaziala Espainiako deportazioaren azpiegituran

*Laburpena:* Migratzaile irregularren deportaziorako Espainiako azpiegituraren barruan materialen mihizatzeak dituen kartografia batetik abiatuta, barnekoek esfera publikoa ikusarazteko eginiko ekintza batzuk aztertzen dira.

*Hitz-gakoak:* *suntsiketa operatiboa, atzerritarrak barneratzeko zentroak, mugako azterlanak, arkitektura txikia.*

*Abstract:* A cartography of material assemblages chosen from the Spanish deportation infrastructure will be the departure point to analyze a series of actions led by inmates to achieve public domain through conflict.

*Key words:* *operative destruction, CIEs, borderstudies, minor architecture*



**Antonio Giráldez López**  
Arkitekto doktore, editore eta ikertzaile galegoa. Egungo praktika espazialak Bartlebooth-en mapatzen ditu.

Jasotze data: 2020-06-30  
Onartze data: 2020-11-17

## Sarrera

Ba al dago arkitektura baten baldintza espazialak berreraikitzea, haien materialtasunaren zati txikiagoetan oinarrituta? Ba al dugu gaien zati zehatzetan aurkitzerik eraikinen arkitektura-konfiguraziotik bertatik esanekoa betetzera derrigortuta dagoen gorputz baten barruko borroka eta gatazken erregistroak? Horretarako, xehetasunez begiratuko diegu hiru arkitektura-azalerari. Eraikuntzako materialaren hiru eskala oso txiki; haren bidez, doktrinamenduaren arkitektura batzuen barneko baldintza espazialak berreraikitzeke ahalegina egingo dugu. Itxuraz, plano horiek edozein hiriren kanpoaldean egon litezke, edozein eraikinen zati izan litezke. Lurralde-azpiegitura berak lotzen eta konektatzen dituen hiru eskala eta lokalizazio.

Lehen: pintura horiz estalitako hormigoizko horma bat; bertan, hutsune bakoitza kolore urdineko altzairu mikrozulatuzko plantxa kurbatuarekin estali da, eta, kanpoaldetik, hutsune opakua balitz bezala ikusten da, argia barrura sartzen den bitartean. Bigarrena, logela txiki bateko horma osoa estaltzen duen orri zuria. Hirugarrena, espazio garbi bateko horma zuritu zimurtsuak. Itxuraz, haietako bat ere ez da bereziki nabarmena, erabat arruntak baizik, eta, halere, dagozkien arkitektura-piezak espazio erabat ezohikoak dira —terminoaren zentzu juridikoan eta arauzkoan—. Eraikin horiek hainbat eta hainbat planotan ikusezin egin dira, bai hiri- eta arkitektura-planoetan, bai plano politiko eta legezkoetan; haietan, ekintza hutsal baten bidez, haien gaiaren eta horrek irudikatzen dituen legeen inguruko ekintza txikiaren bidez, ikusgai egotea lortzen

dute eta, hala, dimentsio publikoa eta kolektiboa izatea. Arkitektura-taktika txikiak, ezegonkorak eta tenporalak aztertuko ditugu, azalera horien opakutasuna zeharkatzea lortzen dutenak, erabat ilundutako barnealdera argia bideratuz. Eta, aldi berean, barnealde arkitektonikoa eta bertako barruko gorputzen baldintza espazialak ikusaraztea lortzen dute. Materialtasun berriak irakurtzeko, lantzeko eta eratzeko hiru modu desberdin, barnealde ikusezina dagozkien arkitekturak aise gaintzen dituzten gatazkarekin eta dimentsioarekin konektatzen dutenak.

Azalaren —nahiz eta haien artean puntu geografiko oso desberdinetan egon—, haien materialtasunaren eta eratu zituzten arkitektura-eragiketen arteko konexio bakarra da lurralde-azpiegitura berekoak izatea: Atzerritarrak Barneratzeko Zentroak eta deportaziorako arkitekturak. Bartzelonako atzerritarrak barneratzeko zentroaren inguruetan dagoen pintura akrilikodun hiri-ehunaren azalera aldatuaren bidez, hari dagokion errealitatera berehala hurbil gaitzke. Honela dio: «Guantánamo está aquí» (García, 2012). Ipar Amerikako gunea dakar gogora; bertako barneko indarkeria espaziala ezaguna da, erabat, hura zehazten duten hormengatik eta arkitekturagatik ez ezik, leku horretatik kanpora sekula onartuko ez lirakekeen ekintzengatik ere. Estatu Batuetako basearekiko alde funtzionalak alde batera utzita, deportaziorako azpiegitura horren hutsune eta puntu itsuak aintzat hartuta Bartzelonako asfaltoaren gainean espriarekin idatzitako kidekoa egokia da: atzerritarrak barneratzeko zentroen funtzionamendua — eta, hala, dagokien lurralde-gailuarena— operatibitateko, lege-indarreko eta salbuespeneko baldintza bati dago lotuta, eta, ondorioz, beste edozein egoeratan beharrezkotzat joko



1. irudia - Matxinada baten erdian dagoen zentroaren itxuraren xehetasuna.  
Egilea - Olmo Calvo.

liratekeen berme espazialen mugatik oso azpitik dauden baldintzetan eta indarkeriaren eraginpean jartzen ditu gorputzak.

Baina, gainera, lurralde-azpiegitura horren funtzionamendua gorputzen —kasu honetan gorputz migratzailea— doktrinamenduari dago bereziki lotuta; izan ere, nahiz eta haren eginkizun nagusia —edo adierazitako asmoak— aldi baterako leku gisa baliatzea izan —hirurogei egun artekoa—, migratzaileak benetan deportatu aurretik, hori ez da hala gertatzen kasu guztien erdietan ere. Hau da, azpiegituraren funtzionamendu operatiboa —edo asmo ez-adieraziak (Easterling, 2014) — da buffer-zone edo migrazio irregularren aldi baterako kontrol zigortzaile gisa funtzionatzea; izan ere, migratzaileak askatasunaz gabetzeko zigorpean jartzen ditu, inolako krimenik egin ez badute ere, eta, gainera, espetxeetarako edo antzekoetarako eskatzen diren baldintza espazialeetatik oso azpitik dauden baldintzen eraginpean jartzen dira.

Helburua izango da aurkitutako azaleretatik zehar ibiltzea, eraikuntza horien opakutasuna bihurtzea lortzen duten arkitektura-taktikak ulertzeko, hura eratu duten ekintzen eta gorputzen analisiaren bitartez. Espainiako Estatuan deportaziorako dagoen azpiegituraren kartografia materiala eta forentsea; bertan, gainera, agerian egongo da espazioan ekintzen bidez dauden baldintza espazialak ikusarazten dituzten eragiketa txikien eginkizuna: alegia, agentzia material berriak sortzea, atzerritarrak barneratzeko zentroen barnean migratzaileen eskura dauden azaleko elementuen eraldaketaren, berrantolamenduaren eta osaeraren bidez.

### **Hutsuneak aurkitzea. Alucheko atzerritarrak barneratzeko zentroa (Madril)**

Aztertutako lehen azalera Alucheko atzerritarrak barneratzeko zentroan (Madril) horiz margotutako hormigoizko harresi suntsitua da; arretaz diseinatu da, logelen moduluaren inguruetatik dabilen edozein oinezkoentzat itxuraz osorik opakua den fatxada sortzeko. Jatorrizko arkitekturaren dagoen hutsune bakoitza urdinez margotutako altzairu mikrozulatuzko plantxa batekin itxi da. Fatxada horiak eta urdinak, korporatiboki, polizia-kidegoaren koloreak —Polizia Nazionala— dakarzkigu gogora, zentroaren kudeaketaz arduratzen direnenak. Itxuraz, azalera homogenea eta kalearekin paraleloa den azalera erabat opakua. Hala ere, altzairuzko plaken geometria makurrak hutsunea uzten du barrualdearen eta kanpoaldearen artean. Hutsune hori ez da nahikoa barrualdeko gorputzak zuzenean ikusarazteko; hori, hala ere, erabakigarri bilakatu da atzerritarrak barneratzeko zentroaren barruan izan diren hainbat matxinada eta errebotatan: hutsune horietako bakoitzean esekitako izara zuriek kanpoaldeko homogeneousasuna aldatzea lortzen zuten. Nahita egindako suen keak eta sugarrek —zentroko bertako altzariekin eta materialekin— hormako geruza materialak zeharkatzen zituzten, harik eta kanpoaldera iritsi arte, bertan zeuden pitzaduren bidez.

Itxitako gorputzek, hormaren materialtasunean, aurreikusten ez ziren eta esfera publikora iristeko balio zuten zuloak aurkitu dituzte; suntsipen operatibo baten bidez —su eman edo arkitektura-diseinua aldatu—,

haren izaera naturala aldatzea eta, hala, beste bat eratzea lortzen zuten. Ordu batzuetan bakarrik ere —matxinada batzuetan baita egun batzuetan ere— izara zuriek oinezko eta auzokoentzat eraikin baten hiri-fatxada aldatzea lortzen zuten, eta kanpoaldean barruan bakarrik gertatzen zen gatazka espaziala uzten zuten agerian. Ez zen beharrezkoa gorputz fisikoak azalera eta fatxada zeharkatzea kanpoaldera iristeko —Melvillek (2007) ordea bestelakoa adierazi zuen—; hemen bilakaera publikorako hormaren opakutasuna zeharkatzen duen hedapen edo mihizadura post-humano gisa funtzionatzen duen oihal-zati bat baino ez zen behar.

Beraz, hormaren materialtasuna, hutsune bakoitza, poro eta pitzadura bakoitza zehatz ezagututa jakin ahalko da zein diren elementu ahulenak edo muntaia-material baten zatiak, eta, beraz, nola manipulatu, termino espazialean, indarkeriazko ekintza operatibo baten bidez. Hala, ezagutza taktiko horrek diseinuan planteatzen diren aukerez bestelako aukera espazialak ekarriko ditu, eta, aldi berean, hausteko beharra —eraikinaren diseinuari buruzko legeak eta haien funtzionamendua— eta horretarako ekintzak eta eragiketak ezagutzeko beharra dakar.

### **Horma erauztea. Zapadores-eko atzerriarrak barneratzeko zentroa (Valentzia)**

Hurrengo osagai materialak Zapadores-eko (Valentzia) atzerriarrak barneratzeko zentroaren barrualdera garamatza. Zentroko gela bateko hormatik erauzitako paperezko estaldura-folioaren azalera berekoa. Paperezko hedapen nahikoa, gutun-azal batean sartzeko eta, Elvin-en bitartez, zentroko barnekoetako baten bitartez (Martinez, 2016), kanpoaldera bidaltzeko bestekoa. Estaldura-material hori, ekintza suntsitzaile baten bidez lurraldegabetua eta testuingurutik aterata —hormako planotik erauzi izana—, oihal zuria da, non, neurri eta geometria zehatzen bidez, eraikinaren barrualdeko arkitektura-planoa eraiki baitaiteke. Trazuak hura berreraikitze nahikoa ez zirenean, marjinak ohar eta argibidez betetzen ziren, bertan bizi diren baldintza espazialen inguruko azalpena hedatzeko. Hala, Elvin, Boliviara bueltan erbesteratu baino egun batzuk lehenago, kartografo txiki bilakatu zen, existitzen zen material bat arkitektura-plano eraldatzeko —aldi berean, proba forentsea ere bazen— erabakia hartu zuenean. Eta ekintza horretan, bai ekintza suntsitzailean, bai paperezko pieza horrek jatorrian jarri zenetik —horma baten zati bat— Latino egunkariaren erredakziorako behin betiko helmugara iritsi arte —bertan argitaratu baitzen— izan zituen bizitza, erabilera eta eginkizunetan, gai informatua ulertzeko beste modu baten ezaugarriak aurki ditzakegu —txikiagoa, tenporala eta ezegonkorra—, baina inskripzioa jaso duen errealitate materiala eraldatzea lortzen du. Bai eta suntsipen-baldintza ere, zeinak bideak ikusten baititu alde guztietatik eta suntsipena behar baitu bitarteko berriak sortzeko (Stoner, 2018). Gai arruntaren agentzia espazialak izaera hori bertan, haren suntsipenaren edo manipulazioaren bidez, esanahi berriak sartzeko ulertu du.

### **Azalera margotzea. Nouadhibou-ko (Mauritania) atxilotze-zentroa.**

Aztertu dugun hirugarren azalera estratu material eta tenporalen metaketa bat da; hegoaldeko mugaren bidez Espainiara iristeko ahaleginetan (CEAR, 2009) aberriratzear dauden migratzaileen logela izateko baliatutako nabeetan boligrafoaren, lapitzaren eta errotuladoreen bidez gainjarritako marren bitartez konektatutako emokadura zuriko geruzen elkarketa. Azalera horren bidez, gainera, aztertutako lurralde-azpiegituraren konplexutasuna eta handitasuna zenbaterainokoa den ikus dezakegu; izan ere, Espainiako Estatuaren lege- eta geografia-mugetatik harago hedatzen da, eta entzierroaren tipologia ahulagoa darama Mauritaniako kostaldera, zehazki Nouadhibou kostaldeko udalerrira.

Muntaia-material horrek alderantziz funtzionatzen du, aurrekoak ez bezala: barrualde isolatu batetik —eta bertatik irten gabe—, haien artean deskonektatuta dauden kanpoaldeko espazio ugari konektatzeko gai da. Hormetan metatzen diren marrek, zirriborroek eta hitzek zentroko hormetan kartografia aldakorra eratzen dute; kartografia horrek bertan bizi izan diren denbora, gorputz eta lekuei buruzko informazioa biltzen du, bai eta iragana, oraina eta etorkizuna batzen dituzten informazio baliotsua, aholkuak eta eskariak eta jatorrietako askotariko geografiak ere. Azalera aldatu horretan, bi ekintzatarako deia egiten da. Lehena: ekintza errebelde eta esanahi indibidual gisa marraztea edo idaztea, modu homogeenokan jokatu behar duen gorputz anizkoitz bihurtzeko edozein berezitasun eta berehalako deportazioaren ondoko edozein bizitza-historia ezabatzea bideratuta dagoen erakunde baten barruan. Bigarrena: ekintza indibidual gisa marraztea, azalera beraren gainean errepikatuz eta gainezarritz aldi berean kolektibo bilakatzen dena. Eta hala egitean, azalera eta marrazkilariak ahalmen politiko handiagok kargatzen ditu: botereak gauzatzen duen berriazko eten espazialari aurre egiten diote —bai barnekoak eurak beren jatorrizko erkidegoarekin, bai espazio horretan derrigorrean bizi izan diren barnekoak eurak, haien arrasto bakarra hormaren gaineko tinta baino ez dena—. Hala, gorputzen arteko afektuak eragiten ditu, haien eraldaketaren, idazketaren eta marrazkiaren bidez.

Azalera hori marraztu beharrean irakurri egiten denean eta ekintzak plano material berean agertzen direnean, kontrako desplazamendua lortzen da: kontenplaziozko ekintza gai da hondar horiek gorputz kolektibo eraldatzeko, espazio horretan bizi diren —bizi izan diren eta biziko diren— gizabanakoak batuz. Konstelazio horren kontenplazioak azalera arrunta lurraldegabetzen du, barnekoen erregistro emozionala edo errolda erakusteko ez ezik, haien arteko afektu komunak sortzeko ere, haiek bereizten dituzten denbora edo geografia aldetiko distantzia aintzat hartu gabe.





### Irekiera. Ikusgai(tz) dauden gorputzak

Itzul gaitezen abiapuntura eta beha diezaiegun berriz muntaia-material horiei. Begira diezaiegun hurbiletik haiek eratzen dituzten prozesu bortitzei, tenporalei eta ezegonkorrei; guztiak jasan dituzte taktika txikiak, gatazkak barne hartzen dituztenak eta aurretiko arkitektura-funtzioen eta diseinu-lege horiek irudikatzen dituen gaiaren suntsipenaren bidez —erabatekoa edo zati batekoa— ikusarazten dituztenak. Eztabaida eragiten duen gai —eta espazio— bilakatzen dira mihiztatzeak, haiek zehazten dituzten elementuen gaineko zuzeneko esku-hartzearen bitartez. Onartutako behin-behinekotasunean eta ezegonkortasunean oinarrituta eratzen dira mihiztatze horiek; izan ere, haien eginkizuna ez da behar baino denbora gehiago irautea —matxinada bati eustea edo bertan dauden trazuak ezabatuko dituen pintura-geruza bat—. Mihiztatze horiek, itxuraz txikikeriatzat jotzen badira ere, agentzia espaziala eta politikoa dute, dauden baldintzak ikusgai jartzen dituen alternatiba bat, eta ez du hala egiten diseinuaren edo proiektuaren abstrakzioa eragin duten baldintzetan, baizik eta erabateko berdintasuneko plano batean —materialtasun zehatza—.

Baina, jarraitu aurretik, agentzia materialaren autonomia ezagutu behar dugu (Bennet, 2009). Alegia, eraikinen konposizio materialak eta haren konfigurazioak praktika batzuetarako aukera ematen dute eta, aldi berean, beste batzuk oztopatu. Hala, arrakasta, nolabait, hura eratzen duten agenteen artean sortutako mihiztatzea sendotzeko gaitasunean datza, gaia xede jakin batera bideratzeko. Plantxa metalikoak makurrak izan beharrean zuzenak balira, ez zatekeen aukerarik egongo izarak eraisteko, eta ezinezkoa izango zatekeen papereztatuta ez dagoen horma batean mapa marraztea.

Ziurrenik, mihiztatze horien eraketaren arrakasta gaia eta hurbileko ingurunea ikuspegi operatiboarekin irakurtzeko gaitasunean datza. Alegia, ingurumen-informazioa, irakurria izateko ez ezik, erasana eta eraldatua ere izateko ulertzea —urratze implizituaren (Tschumi, 1990) bidez—. Arkitekturaren mamia dimentsio operatibo horretatik ulertuta baino ezingo da argitu material bakoitzaren agentzia-maila. Eta haren izaera materiala plano zehatzetik ulertu, eta ez diseinu-parametroetatik, hala haren aukera sortzaileen jakitun egoteko: haren dimentsio afektiboa, gai dardartia eta gorputzek eta ekintzek berarengan eragina izateko eta hark eragiteko duen gaitasuna.

Erabateko salbuespeneko arkitektura-espazio horietan aurkitu dugun dimentsio txiki edo operatibo horrek (Stoner, 2018; García de Jalón, 2017) konfrontazio zuzenetik izaera material horretan sakontzea dakar, bide berriak irekiko dituen suntsipen sortzailea proposatzea. Edo, termino espazialak aintzat hartuta, espazio- eta arkitektura-aukera berriak sortzea, eta, horretarako, dagoen gaia aldatzeko edo hackeatzeko eragiketak egitea eta gaiari beste funtzio eta esanahi batzuk ematea: aldean artean harreman berriak eraiki ahal izateko ezusteko agentzia berriak.

///

### Bibliografia

- Bennet, J. (2009): *Vibrant Matter: A political ecology of things*, Duke University Press, Durham.
- CEAR (2009): *Informe de evaluación del Centro de Detención de Inmigrantes en Nouadhibou (Mauritania)*, Comisión Española de Ayuda al Refugiado, Madril.
- Easterling, K. (2014): *Extrastecraft*, Verso Books, Londres.
- García, A. (2012): «La muerte de un guineano evidencia las carencias del CIE de Barcelona», *El País*, 2012ko urtarrilaren 6a.
- García de Jalón Oyarzún, L. (2017): *Excepción y cuerpo rebelde: lo político como generador de una arquitectónica menor*, doktore-tesia, Universidad Politécnica de Madrid.
- Martinez, T. (2016): CIE: *El Guantánamo Español*, UOC, Bartzelona.
- Melville, H. (2007): *Moby Dick o La Ballena*, Akal, Madril.
- Stoner, J. (2018): *Hacia una arquitectura menor*, Bartlebooth, Galizia.
- Tschumi, B. (1996): *Architecture and Disjunction*, The MIT Press, Londres.

Souleymane dit Solo BARRBO  
dit Mounh

J'ai été venu en Témérit le 8 Novembre 07  
J'ai quitté au Mali le 24 octobre 07  
Arrivée au Sénégal jeudi le 25 octobre 07 parti  
de Ylliso à M. Bour, j'ai pris le taxi pour aller à Joffe  
Je suis ARRIVÉ à Joffe le 26h 15 du matin  
J'ai pris la pinasse à partir 23h le même jour  
On est parti à Gamb. pour prendre des gambiers  
On a fait 12 jours sur Socor Atlantique  
Arrivé en Espagne 5 Novembre de 2007 A partir  
de 22h 30, on a fait 2 jours à la police de Témérit  
Après 21 jours avoir au Centre L'émigré pour 10 jours  
Moi on a fait 14 jours la liste + nommeré au las  
palmas sans un Centre L'émigré pour faire  
Le reste du séjour. Après 20 jours il est là

3. irudia - Nouadhibouko Etorikinen Atxikitze Zentroaren Artxiboa, Mauritania.  
Egileak - Patricia Gómez eta María Jesús González.